

Abiadura-muga

Hainbat hirigunetan, trafiko-araudi berria ezarri dute gehienezko abiadura-mugari dagokionez. Araudiak eztabaida piztu du, eta horri buruz dihardu Don Bosco eskolako autogintza-irakasleak, Javier Oskozek.



Pixabay



Audioa entzun eta, ondoren, egin ariketa



<https://labur.eus/Ehzey>



Aukeretatik hautatu erantzun egokia

1. Audioaren arabera, zein esaldi da zuzena abiadurari dagokionez?

- Gure hiriguneetan, bi erreki dituzten norabide ezberdineko errepideetan soilik ezarri da 30 Km/h abiadura.
- Gure hiriguneetan 30 Km/h gehienezko abiadura ezarri da, erreki-kopurua kontuan hartu gabe.
- Norabide bakarreko erreian gehienezko abiadura-muga aldatu egin da; bi norabidetakoan ez.

2. Zergatik uste du Javier Oskozek jarri dutela 30 Km/h abiadura-muga?

- Uste du agian araugileek pentsatu zutela 30 Km/h abiaduraren azpitik motor elektrikoa erabiliko zela batez ere.
- Ziurrenik auto elektrikoek salmenta handitzeko jaitsi zuten abiadura-muga.
- Javier Oskozek uste du abiadura murrizteko arrazoi nagusia istripuak gutxitzea izan dela.

3. Elkarrizketatuaren iritziz zer gertatzen da gaur egun autoekin?

- Gaur egun errepideetan dabilzan auto gehienak ez zirela diseinatu orain ezarri diren trafiko-baldintzetarako.
- Arazo nagusia da jendeari kostatzen zaiola aldaketetara ohitzen: neurri berriekin abiadura eta autoen martxak nola erabili, eta abar.
- Duela hamabost urteko teknologia dutenez, aproposak direla 30km/h abiaduran ibiltzeko.

4. Zer uste du Javier Oskozek 30 Km/h abiadura-muga dela eta?

- Oskozek uste du gaur egungo autoak efizientzia handikoak direla abiadura-muga horretan ibiltzeko.
- Uste du 10 urte barru agian zentzu handiagoa izango lukeela abiadura-muga berriak, autoetan joerak aldatzen ari baitira.
- 30 km/h abiadura-muga orain ezartzea egokia dela, autoen diseinua aldatzea ekarriko baitu.

Ted Browning.
Pixabay

ERANTZUNAK

1. Audioaren arabera, zein esaldi da zuzena abiadurari dagokionez?

Gure hiriguneetan 30 Km/h gehienezko abiadura ezarri da, errei-kopurua kontuan hartu gabe.

2. Zergatik uste du Javier Oskozek jarri dutela 30 Km/h abiadura-muga?

Uste du agian araugileek pentsatu zutela 30 Km/h abiaduraren azpitik motor elektrikoa erabiliko zela batez ere.

3. Elkarrizketatuaren iritziz zer gertatzen da gaur egun autoekin?

Gaur egun errepideetan dabilzan auto gehienak ez zirela diseinatu orain ezarri diren trafiko-baldintzetarako.

4. Zer uste du Javier Oskozek 30 Km/h abiadura-muga dela eta?

Uste du 10 urte barru agian zentzu handiagoa izango lukeela abiadura-muga berriak, autoetan joerak aldatzen ari baitira.

TRANSKRIPZIOA

Javier Oskoz irakaslea.- Orain, behintzat, zeresan handia ematen ari dena hiriguneetan ematen dena, ez? Gure hiriburuetan, hiri handietan eta ematen dena, ez? Eta, azken finean, norma (araua) nahiko erraza da. Suposatuz kale batean bi errei, esango nuke, bi errei alde batera eta bestera joateko errei bakoitza, bana baldin badago, bi errei: bat alde batera eta bestea bestera, suposatzen da lehenago bezala jarraitzen duela, 50 Km/h. Zentzu (noranzko) bateko errei bat baldin badago, orduan bai, 30era jaisten dela.

Orduan, baina, gertatzen dena da gure hiriburuek ez dutela norma (arau) hori hartu, egin dutela askoz ere zorrotzago jarri. Egin dutena: zuzenean herri guztian 30ean, igual du bi errei eduki, bat, hiru edo lau. Denean 30 jarri dute eta hor dago, bada, bueno, jendearen kexa edo...behintzat, hor dago, ez?

Guillermo Roa esataria.- Bada, bueno... Nik gogoratzen dudala, txikitan esaten zidaten, bueno, hala ikasi nuen, hirietan 50eko abiadura horrek bazuela zentzu bat eta zen, edo hala azaltzen zen behintzat, istripu bat egonez gero oinezko batekin, bada, hor dagoela muga... bueno, zorte txarra izan dezakezu eta hil, baina, nolabait, muga horretatik gora istripuek hildako asko sortzen (eragiten) zituztela eta hortik behera, bada, ez.

Javier Oskoz irakaslea.- Argi dago. Printzipioz 30 kilometro ordutan istripua izanez gero, askoz ere leunagoa (arinagoa) izan daitekeela eta ekiditeko aukera handiagoak ere badaudela. Hori argi dago. Eta 20ra joaten baldin bada, hobe eta 10era. Istripu gutxien izaten dituen autoa izaten da aparkatuta dagoena, bai? Eta gutxien kontsumitzen duena, arrankatzen (martxan jartzen) ez dena. Hori hala da, baina klaro, tarteko zerbait bilatu behar dugu, ez? Nire ustez hor, bere garaian... klaro, orain, gaur egungo kotxeak (autoak) baten batek adituko zuen, bada, gaur egungo hibridoak eta entxufableak eta horiek guztiak 30 Km/h abiaduratik behera elektrikoan joaten direla.

Orduan, baten batek, nik uste dut, pentsatu egin zuela, pues bueno, jarri dezagun muga hor, 30ean eta ya está (kito), ja, behintzat, hibridoak-eta, denak elektrikoan joango dira. Baina hori ere ez da horrela, bai? Ez da horrela zeren, nahiz eta hibrido edo entxufablea (entxufagarria) izan, bai? 20 Km ordura edo 30etik behera joatea badauka gasolinan, bai? Betiere joango da bateriaren kargaren baitan, eta zuk eskatzen diozun (dionunaren) baitan, bai? Zuk halako batean justu atera eta segituen semaforo batean gehiegi zanpatzen badiuzu autoari ere, berak ikusten badu potentzia behar duzula, beraz, gasolinako motorra sartu egingo da, bai?

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

Sartu egingo da, orduan, askotan joaten da gehiago zuk zer eskatzen diozun abiaduraren baitan, bai? Hori hala izaten da. Orduan, arazoa zein da? Gaur egungo kotxeak (autoak) batez beste, hemen gure kaleetan-eta ibiltzen diren kotxeak (autoek), batez beste, 13 urte dauzkatela, batez beste. Orduan, horrek esan nahi du gutxi gorabehera daukagula orain dela hamabost urteko teknologia. Eta orain dela 15 urte ez ziren pentsatzen jarri, bada, zein izango zen hiriguneetako abiadura handik(an) 15 urtera, baizik eta bueno, ikusten zuten 50 Km/h abiadura hor zegoela eta gero beste abiadura... ez dakit bada, inportante bat, garrantzitsu bat zela 80-90ekoa, eta gero beste bat inportantea, pues (bada), 120koa autopistan (autobidean).

Orduan, kotxeak (autoak) egiten dira diseinatu, pentsatu abiadura horietan ahalik eta efizienteen izateko, bai? Orduan, guk hor badaukagu abiadura-kaxa bat, normalean 5 edo 6 martxa izaten dituen, eta horregatik izaten dituzte 5 edo 6 martxa, pues (bada), guk aukeratu ahal izateko segun eta ze belozitatetan (abiaduratan) momenturik efizienteena, momenturik egokiena erreboluziotan, par motorra, potentzia...eta hori dena (hori guzti hori) hor sartzen da. Orduan, gertatzen dena da gaur egungo kotxeak (autoak) edo bueno, dabiltzan kotxe (auto) gehienak ez daudela pentsatuta 30 Km/h abiaduran joateko, baina bueno...

Guillermo Roa esataria.- Parkea erabat berrituko bagenu, bada...

Javier Oskoz irakaslea.- Hori da!

Guillermo Roa esataria.- ... bada, agian izango luke...

Javier Oskoz irakaslea.- Orduan seguraski bai, zeren badago beste tendentzia (joera) bat: auto automatikoak, gero eta gehiago ikusten dira, bai? eta gero, pues (bada) hori, hibridoak, elektrikoak gero eta gehiago ikusten dira. Orduan, horrekin esan nahi dut hemendik hamar urtera, bada, akaso, igual zentzu gehixeago izango duela.